

# BASQUE PRECISION TECHNOLOGY DISTRICT-ERAKO ENPRESA-PROIEKTU ESTRATEGIKOAK IDENTIFIKATZEA ETA GARATZEA

*Posted on 21/10/2024 by Naider*

**Category:** [Albistea](#)

**Tags:** [Berrikuntza proiektuak](#), [Competitividad industrial](#), [Lehiakortasun industrial](#), [Promoción económica local y territorial](#), [Proyectos de innovación](#), [Tokiko eta lurraldeko ekonomia sustapena](#)

[Debegesak](#), Debabarreneko garapen agentziak, NAIDERen laguntza izango du [Basque Precision Technology District \(BPTD\)](#) delakorako enpresa proiektu estrategikoak identifikatu eta garatzeko.

Debegesak sustatutako BPTDak Debabarreneko eta inguruko eskualdeetako ekosistema industriala bultzatzea du helburu, doitasun-teknologiaren aldeko apustua eginez. BPTDren elkarte publiko-pribatuaren parte dira, inguruan arlo horretan lan egiten duten enpresa nabarmenez gain, Debabarreneko zentro teknologikoak ([Ideko](#) eta [Tekniker](#)), eskualdeko lanbide-heziketako zentroak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Lankidetzaren bidez, BPTDrekin estrategikoki lerrokatutako ekimenak azaleratu nahi dira, Debabarrenaren inguruan berrikuntza, lehiakortasuna eta garapen iraunkorra bultzatzeko gaitasuna dutenak.

